

San Joan  
Astobitza, Delika,  
Zalao, Uribarri,  
Sanpedropeko,  
Arakaldo, Luiaondo,  
Areta eta Ugarteko  
jaiei buruzko  
gehigarri berezia



# Aiaraldea JAIETAN

# SAN JOAN Astobitza



“GURE GARAIAN DENOK  
GENEKIEN TALOA EGITEN,  
OHIKO JAKIA ZEN ETXEETAN”

**MARIA CARMEN OLABARRIA ARZA** (Laudio, 1938) ETA **ENCARNACION MONTALBAN ISUSI** (Laudio, 1941) DIRA SAN JOAN ASTOBITZAKO JAIETAN TALOAK EGITEN HASI ZIREN EMAKUMEETAKO BI. EUREK ESKAINI ZUTEN TALO TAILERRA HILABETE HASIERAN GURDI GAZTETXEAN, ETA TRADIZIOAREN JATORRIAZ MINTZATZEKO BALIATU ZUTEN EKIMENA.

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

**Zuek zarete San Joan Astobitzako jaietan taloak egiten hasi zirenetako batzuk. Nola abiatu zen tradizioa?**

*Encarnacion Montalban Isusi:* Ez dut oroitzen zehazki zer urtetan hasi ginen, duela asko izan zen. Vicente Urkixo da ekimena abiatu zuena, Vicente Lekan-dazarrekoa.

Emakume talde bat batu ginen, guztiak gure artean koinatak ginenak, eta pentsatu genuen odolosteak eta taloak egiten hastea, San Joanetako jaiei bultzada apur bat emateko. Lan asko egin genuen guztiok. Garai hartan oso festa handian ziren San Joanekoak.

Diru apur bat ateratzea zen helburua, Jai Batzordearentzat.

**Hasieratik ekin zenioten taloak egiteari?**

*E.M.I.:* Bai, odolosteekin, hirugiharra-ekin eta txorizoarekin.

**Zuek bazenekiten taloak egiten?**

*Maria Carmen Olabarria Arza:* Bai, etxean ikasi genuen. Taloak egiten jaio gara. Etxean egiten genituen, familian jateko.

**Ohiko jaki bat zen orduan?**

*M.O.A.:* Bai, ohikoa zen.

*E.M.I.:* Ogi eskasia zegoenean taloak egiten ziren. Ez zen festetarako jaki bat...

**Bizirauteko jaki bat zen orduan.**

*M.O.A.:* Hori da, norberaren mantedurako.

**Baina errezeta ezberdinak daude, ezta?**

*E.M.I.:* Orain irizpide berriak daude. Lehen arto irinaren bi eskukada garizko batekin nahasten genuen. Orain, aldiz, proportzioak aldatu dira.

Taloak ez ditugu San Joanetan soilik egin. Ni Araba Euskaraz jaietan ere aritu naiz egiten, oso aspaldi. San Blas azokan ere egiten genituen, plazan.

*M.O.A.:* Talo asko egiten ziren bertan, ez dut kilo kopurua gogoratzen, baina irin guztia agortu arte aritzen ginen bertan.

*E.M.I.:* Taloak egiten ziren toki guztietan aritzen ginen laguntzen, musutruk.

**Zenbat pertsona hasi zineten San Joanetako taloak egiten?**

*E.M.I.:* Sei edo zazpi emakume inguru: Mari, Isabel, Dolores, Eugenia, gu biok...

**Ordutik hona dimentsio handia hartu du ekimenak, San Joan Astobitzako jaietako ikur bilakatzeraino.**

*E.M.I.:* Hori da, gaur egun jende guztiak lotzen du San Joan taloarekin, eta hori jatera igotzen dira.

**Zer nolako bilakaera izan dute jaiak zuten garaitik gaur egun arte?**

*E.M.I.:* Gu hasi ginenetik hona behar handia egon da jende kopuruari dagokionez.

Garai batean ezin zen errepidetik ibi-

li ere egin, jende andana zegoelako. Jende kopuru izugarria. Baina gero jais-ten hasi zen.

*M.O.A.:* Orain ere badoa jendea. Taula-pada-markagailua jarri zidatenetik ez naiz joan San Joanetan taloak egitera.

*E.M.I.:* Nik ere traba batzuk izan ditut eta utzi nion San Joanera igotzeari, baina hori baino lehen 10-12 urte aritu ginen laguntzen.

*M.O.A.:* Oso ondo pasatzen genuen. Denak ginen ezagunak, familiakoak, eta oso gustora aritzen ginen.

*E.M.I.:* Jaietan alde aritzeko gogoak genuen, dirua ateratzeko. Gure seme-alabak ere aritzen ziren jaietan antolakuntzan. Bere garaian ez zegoen txosnarik, eta jendea geratu behar zen gau osoa bertan, edaria zaintzen. Hiruzpalau lagun geratzen ziren eta primeran pasatzen zuten.

**Belaunaldi aldaketa ere eman da taloen txosnan.**

*M.O.A.:* Bai, orain nire ilobak daude bertan.

## SAN JOAN Astobitza

# Egitaraua

## 06.20 Larunbata

**09:00** // Bola Txapelketa  
**13:00** // Musika bandaren igoera  
 (Laudioko Musika Banda)  
**18:00** // XVII. San Joan Krosa  
**22:30** // Kontzertuak: Steady Rockets,  
 Sedientos de Cumbia eta Argitu  
 erromeria

## 06.21 Igandea

**12:30** // Euskal Dantzak  
 (Itxarkundia Dantza Taldea)  
**13:00** // Herri kirolen erakustaldia  
 (Urtza HKT)

## 06.23 Asteartea

**18:00** // Haurrentzako jolasak  
 (Kirikiño Aisialdi Taldea)

**19:00** // Buruhandiak  
 (Galtzagorri K.T.)  
**22:00** // Suaren piztea  
 + Txokolate jana  
 + Dantza emanaldia (Akelarre D.T.)  
 + Kontzertua: Errotik



## 06.24 Asteazkena

**12:00** // Andere abesbatza + Meza

## 06.27 Larunbata

**13:00** // Santa Luzia Korala + Meza  
**14:30** // Kofradia Bazkaria



Zeuzara  
**Laudio**  
 Uda ate joka  
 auzoak eta  
 herria jai  
 giroan!



Landaluze 17, behe LAUDIO  
 94 672 55 69  
 Larrialdia: 608 87 62 70  
 Etxez etxeko zerbitzua



[www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)



# Aiaraldea jaietan

## Ekaineko azken asteburua hartuko dute Delikako jaiek



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Ekaineko azken asteburuan ospatuko dira Delikako jaiek. Ostiral iluntzean hasiko da festa. 21:00etan piztuko dute lehen suzeria, eta patata tortilla txapelketa egingo dute gero. Parte hartzaileek etxetik eraman beharko dute prestatuta, bertan aurkezteko. Ondoren, jai tematikoa egingo dute goizaldera arte, eta cowboy moduan mozorrotzeko deia luzatu dute.

Larunbatean, aldiz, goizean abiatuko dute egitaraua, mendi martxarekin. Zehaztu dutenez, hamarretan izango da irteera, eta 10 kilometro inguruko ibilbidea egingo dute. Ordu erdi beranduago, aldiz, irteera familiarraren txanda izango da, hiru kilometroko luzera izango duena.

Ondoren, herri bazkaria egingo dute indarrak berreskuratzeko. Tiketek 14 euro balio dute eta toki hauetan eskuratu daitezke: El Infierno jatetxean, Gernika kafetegian, Artomañako Txokoan, Lupardika tabernan eta Amurrioko Kultur Etxean.

Tripa beteta, ez da atsedunik

hartzeko tarte askorik egongo, Arrastariaren desafioa eta bigantxak egongo baitira arratsaldean. Gauean, aldiz, Zutik berbena eta DJ Varro arduratuko dira parranda giroteaz.

Igandean, aldiz, giro lasaiagoa nagusituko da. Goizeko zortzietan jarri dute zita enparantza eta inguruak garbitzeko, mezari eta pintxo-poteari paso eman baino lehen. Arratsaldean, aldiz, zezen mekanikoa, puzgarriak eta txokolatada eskainiko dituzte, eta Eriz & Totum Revolutumen kontzertuarekin eta parrilladarekin emango diote amaiera egitarauri.

### Autobusa Urduñatik

Urduñako Udalak hiru urte daramatza doako autobusa antolatzen Delikatik itzultzeko, herriarrek larunbat gaua "nahi baino lehen amaitu behar ez izateko". Aurten bi irteera egingo dituzte Delikatik igandeko lehen orduan, 6:30ean lehena eta 7:30ean bigarrena. 16 urtetik gorako edozein herriarrek eman dezake izena zerbitzuan eta Alondegian egongo da horretarako aukera, ekainaren 25era arte.

## Egitaraua

### 06.26 Ostirala

21:00 // Txupinazoa  
21:30 // Patata tortilla lehiaketa  
22:00 // Jai-tematikoa: Cowboy Jaia

### 06.27 Larunbata

10:00 // Delikako II. Mendi Martxa  
10:30 // Mendi Martxa familiarra  
14:00 // Herri Bazkaria  
16:30 // Arrastariaren Desafioa  
20:00 // Bigantzen askatzea  
23:00 // Zutik erromeria eta DJ Varro



### 06.28 Igandea

08:00 // Plaza eta ingurua garbitzeko auzolana  
11:30 // Meza  
12:30 // Pintxopotea  
15:00 // Zezen mekanikoa eta puzgarriak  
18:30 // Txokolate jana  
19:00 // Eriz & Totum Revolutum  
20:00 // Parrillada

## Arrankudiagako Uribarri auzoa hartuko du San Pedro jaiak lau egunez



Testua **Maidier Ramirez Martin**

Arrankudiaga-Zollon ekainaren 23an, 27an, 28an eta 29an ospatuko dute San Pedro jaiak, udako solstizioari begira, sanjoanak barne hartzen baititu egitarauak. Izan ere, Uribarri auzoan soilik pizten dute sua bi aldiz ekainaren azken asteetan, herri gehienetan behin egitearekin nahikoa baitute. Arrankudiagan, ordea, birritan alaitzen dute gaua suaren garrekin.

Lehenengo hitzordua horretarako 23an da eta San Joan da aitzakia, bai sua elikatzeke zein auzokide eta bizilagunen artean txokolatea hartzeko.

Jarduerak ekainaren 27ra arte eten eta umeen egunarekin hasiko dituzte. 11:20an txupinazoak eta kalejirak bidea irekiko diete puzgarri eta jolasei, zeinek egun osoan egongo diren. 13:30ean tartea egingo dute haurren bazkarirako. 17:00etan helduek aukera izango dute Juan Luis Eguskitzza I. Tute Txapelketan parte hartzeko eta izena 16:30ean egingo dituzte tokian bertan. 20:00etan afaria prestatuko dute eta 20:30ean Ekhi-Rock taldearekin agurtuko dute eguna.

Hurrengo egunean igandean, gastronomiak protagonismo handia izango du, bakailao eta tortilla txapelketek balioa baitute egitaraua abiatzeko 12:00etan.

Umeek ere izango dute beta tortilla egiteko eta sariak egongo dira hiru kategorietako lehen hiru sailkatuentzat.

Umeentzako tailerrak ere ordu berean hasiko dira eta 13:00etan Kittu taldearen emanaldia egongo da. Gastronomía lehiaketako parte-hartzaileek lapikoen aurkezpena 14:00etan egin beharko dute eta behin egindako jan eta gero, Diskodantzarekin alaitu dute arratsaldea 17:30etik aurrera. Jaiak 21:00ak arte luzatuko da, ordu horretan sua piztu eta txokolatea jango baitute.

Ekainaren 29 astelehena izango da egitarauaren azken eguna eta auzunera begirako ekintzak eskainiko ditu, nagusiki. 13:00etan ohiturari eutsi eta meza deituko dute, 14:00etan umeek hartuko dituzte mahaiak bazkaltzeko eta 15:00etan helduen txanda helduko da. 17:30ean The Lhore Blues Band taldeak kontzertua egingo du eta aurtengo ospakizunak 21:00etan bukatuko dira ofizialki. bera baita taldeko abeslaria. Herriko DJ mitikoek emango diote egunari amaiera: Azkenak Itxi Dezala.

Kuadrillak jai-sasoien hasieran berriro elkar ikusteko, jantziari hautsa kentzeko eta udari merezi duen ongi etorria emateko elkartuko dira. Aurten, bi talde berri estreinatuko dira Suziri Jai Batzordean: Txiripak eta Zaparrak

## SANPEDROPEKO Jaiak

# Sanpedropekoak, jaietako jantziari hautsa kentzeko aitzakia bikaina



Testua **Maidier Ramirez Martin**

Urtero bezala, ekaina amaitzea-ekin batera helduko dira sanpedropeko festak Laudiora. Suziri jai batzordearentzat abuztuko jaietarako prestatzen hasteko aukera bikaina izango da asteburua eta dagoeneko prest dute bi egunetarako egitarau zabala.

Herriko haurrentzako opari handia egongo da aurten sanpedropekoetako ostiralean. Izan ere, Porrotx eta Marimotots etorriko dira eta Pupu eta Lore ere ekarriko dituzte iluntzea alaitzeko. Txikientzat zein ez hain txi-

kientzat hitzordu gustagarria izango dela aurreratu dute jai batzordeko kideek: "Normalean gazteentzako ekintzak antolatuta ohi ditugu, baina beharrezkoa iruditzen zitzaigun oraingoan etxeko txikietaz oroitzea, nahiz eta, egia esateko, gutako asko gerturatuko garen gure txikitako soinu banda entzuteran".

Pailazoen aurretik, puzgarriak egongo dira goizean eta Naiara Trifolek kontzertua eskainiko du 18:00etan. Gauean, eskualdeko musikariek hartuko dute oholtza: Deriba eta Zinkha taldeek rock doinuak beteko dute Aldai plaza.

Larunbata izango da kuadri-

llentzako egunik handiena. Goizetik abiatuko da, sukalki eta tortilla txapelketen. Eguerdian aurkeztu beharko dituzte parte hartzaileek prestatutako tortillak eta geroago, 13:45ean, sukalkiak. Ordu bi eta erdiak aldera bazkari herrikoia egingo dute, lehiaketetan kozinatutakoarekin.

Bingo musikatuak girotuko du bazkalostea eta 18:30ean, Ilargi txaranga abiatuko da kalez kale herria alaitzera.

Kontzertuen aurretik, DJ Ozarta audioarrak girotuko du iluntzea. Arrasateko Etxepe gazte musika kolektiboak hartuko du eszenatokia 22:00tan: Axerik, Fanek,

Elik eta Maidak bere "etxeperreoa" ekarriko dute Laudiora.

Zirkinik bez! erromeriaren txanda izango da gero eta Ztanda saioan parte hartzen ari den Ximena abeslari audioarra ikusteko aukera egongo da bertan, bera baita taldeko abeslaria. Herriko DJ mitikoek emango diote egunari amaiera: Azkenak Itxi Dezala.

Kuadrillak jai-sasoiaren hasieran berriro elkar ikusteko, jantziari hautsa kentzeko eta udari merezi duen ongi etorria emateko elkartuko dira. Aurten, bi talde berri estreinatuko dira Suziri Jai Batzordean: Txiripak eta Zapparak.

## Egitaraua

### 06.26 Ostirala

10:30 // Puzgarriak  
18:00 // Naiara Trifol  
19:30 // Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore  
22:00 // Deriba  
23:30 // Zinkha

### 06.27 Larunbata

09:00 // Sukalki eta tortilla txapelketa  
12:00 // Buruhandiak  
12:30 // Tortilla txapelketaren sari banaketa  
14:15 // Sukalki txapelketaren sari banaketa  
14:30 // Bazkari herrikoia  
16:30 // Bingo musikatua  
18:30 // Ilargi txaranga  
20:00 // Arratsaldeoa DJ Ozaretaren eskutik  
22:00 // Etxepe  
23:30 // Zirkinik Bez  
02:15 // DJ Azid



## JAI HERRIKOIAK, zuenak, gureak, denONAK

EKAINAK 26 ETA 27 • ALDAI PLAZA

PUZGARRIAK • SUKALKI ETA TORTILLA TXAPELKETA • BINGOA • ETXEPE  
ZIRKINIK BEZ • ZINKHA • AZKENAK ITXI DEZALA eta... askoz gehiago!



# Zaloako Jaiak

## Moonshine Wagon protagonista Zaloako Jaietako X. urteurrenean

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Zaloako bizilagunek gogotsu heldu diote 2026ko auzoko jaien antolakuntzari. Izan ere, egungo Jai Batzordeak antolatutako festen X. urteurrena da aurtengoa. Garai bateko Zaloako festek zuten sona berreskuratzeko asmoz gazte talde batek Zaloako Jai Batzordea sortu zuen 2016an; ordutik "herritik eta herriarentzako jaiak" antolatu dituzte auzolanean. "Gure aiton-amonen garaian jai handiak ziren Zaloakoak, baina galduz joan ziren. Txikiak ginenean egun bakarrekoak ziren festak, eta igandean ospatzen ziren. Auzoko gazteon

nahia izan da festak berreskuratzeko. Urtez urte indarra hartu eta hobetuz joan gara", azaldu dio Jai Batzordeko Garazi Santacruzek Aiaraldea Komunikabideari.

### Musika eskaintza zabala

Ekainaren 26tik 28ra luzatuko dira Zaloako Jaiak, ostiraletik igandera. Urteroko eskema jarraituko dute aurten ere, baina apustua koska bat gehiago igo eta ostiral gaua are gehiago indartzeko asmoa azaldu du Santacruzek. Horretarako ardura Moonshine Wagon folk taldeak izango du, aurtengo jaietako kartelburua. Hiru diska kaleratu eta mundu osotik zuzenekoak eskaintzen aritu ostean

Zaloako oholtzara ekarriko dituzte bluegrass doinuak, auzotarrek kontzertu "apoteosikoa" espero dute. Moonshine Wagonekin batera Addar rock taldea arituko da. 2018an sortu zirenetik ibilbide oparoa egin dute bermeotarrek: lau disko kaleratu dituzte eta 2020an Rockein lehiaketako euskarazko musika talderik onenaren saria lortu zuten.

### Herritarren neurria

Jaietako larunbata ekintzaz betetarik dator aurten ere: puzgarriak, herri kirolak, paella txapelketa... Paella txapelketa Orozkoko bizilagun asko elkartzen dituela azaldu du Santacruzek; "udari hasiera

emateko modu aproposa da Zaloako paella txapelketa bertaratzea".

Paella txapelketa haratago ere, orozkokoarrak izango dira ekainaren 27ko protagonistak, zalantzarik gabe, eta musika eskaintzan agerikoa da hori. Herriko Ganorabakos taldeak eta DJ Arriagak jarriko diote erritmoa larunbat iluntzeari. Gauegun erromeria ere izango da Zaloako Jaietan, eta "hiru orduko emanaldi indartsua eskainiko du".

Igande eguerdian agurtuko dituzte jaiak, bertsolari eta porra txapelketaekin.

Jai Batzordetik Zaloara gerturatzeko gonbita luzatu diote Orozko eta inguruko herrietako bizilagu-

## Egitaraua

**06.26**  
**Ostirala**

**20:00** // Jaien hasiera  
**22:00** // Kontzertua:  
Addar eta Moonshine Wagon

**06.27**  
**Larunbata**

Egun osoan puzgarriak  
**11:30** // Meza eta pintxoak  
**12:15** // Paella Txapelketa  
**12:30** // Jasoka Herri Kirolak  
**14:30** // Paellen aurkezpena  
**17:00** // Kalaka egurrezko jolasak  
**19:30** // Garagardo dastatzea  
**21:30** // Kontzertuak: Ganorabakos, DJ Arriaga eta Gauegun erromeria

**06.28**  
**Igandea**

**13:00** // Bertsolariak  
**13:00** // Porra Txapelketa  
**13:00** // Pintxoak, zozketa eta jaien amaiera



## ARAKALDOKO Jaiak

# Arakaldoko jaiak, inoiz baino modernoagoak



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Aurten ere, Arakaldoko herri-tarrek hiru eguneko jai egitaraua bizia eta anitza prestatu dute bizi-lagun guztiak protagonista izateko. Ekintzak uztailearen 17an abiatuko dituzte 18:30ean odoloste eta txorizo janarekin eta 19:30ean Las Modernas de Arakaldo taldeak jaurtiko du txupinazoa. Taldeko kidea ez dira, inondik inora, herrikoak, baina behin Yogurinha Borovaren emanaldi batera joan ziren jaietan eta horrela bataiatu zituzten euren buruak, han bizitako pasadizo batengatik. Hala azaldu zuten podcast batean eta Udalari eskatu zioten jotzeko. Euren nahia beteko dute uztailearen 17an.

Jarraian, Tor Magoak familia osoak gozatzeko ikuskizuna egingo du eta 21:15ean Las Modernas de Arakaldo taldeak berak joko du. 22:30ean Gaitegun erromeriak

hartuko du lekukoa eta amaitzen denean, herritarrek eurek jarriko dute bozgorailuan musika gorputzek eutsi arte.

Gautxoriek ez dute atsedenerako tarte handirik izango, larunbatean 11:30ean hasiko baitira triki eta panderoen doinuak kaleak hartzen. 12:00etan mezaren ordua helduko da eta gero pintxoak dastatuko dituzte. 13:00etan umeentzako hitzordu bikoitza eskainiko dute. Alde batetik txapak egiteko tailerra eta, gainera, apar jai.

Bazkalorduan atsedenaldea egin ondoren, 17:30ean bola txapelketan lehiatzeko deituak izango dira interesdunak eta ordu berean tortilla txapelketa eta haur parkeari emango diete hasiera. 19:30ean txokolate jana izango da eta 20:00etan helduentzako umore emanaldia: Despotorre, Ane Lindanerekin (euskaraz) eta Raquel Torresekin (gazteleraz). Umoregileek ohartarazi dute betiko legez, txiste feminista eta politikoak ez

direla faltako eta adin guztientzako ikuskizuna ez dela, nahiz eta guztiek entzun beharko luketen esan nahi dutena. Bakarrizketa amaituta, txapelketaren sariak banatu eta 22:00etan The Golden Covers bertsio taldeak hartuko du oholtza. 23:30ean tokia utziko diote DJ Sospechoso de Spami.

Larunbatean indarrak erre eta gero, igandea lasaiagoa izango da, egokia sasoia berreskuratzen joateko. Horretarako, kirol jasangarria proposatuko dute. Zehazki, 11:30ean bola jokoa eta 12:00etan igel toka txapelketa. Bukatzeko, herri bazkaria egingo dute 14:30ean.

## Egitaraua



### 07.17 Ostirala

18:30 // Txorizo eta odoloste jana

19:30 // Txupinazoa

Modernas de Arakaldo taldearekin

20:00 // Tor Magoa

21:15 // Modernas de Arakaldo

23:30 // Gaitegun erromeria

### 07.18 Larunbata

11:30 // Triki-pandero kalejira

12:00 // Meza

13:00 // Txapa tailerra eta apar jai

17:30 // Bola jaurtiketa

17:30 // Tortilla

lehiaketa

17:30 // Haur parkea

19:30 // Txokolate jana

20:00 // Bakarrizketa:

Despotorre

22:00 // The Golden

Covers Band

23:30 // Dj Sospechoso

de Spam

### 07.19 Igandea

11:30 // Bola jaurtiketa

12:00 // Igel toka

txapelketa

14:30 // Herri bazkaria

EUROMASTER

TALLERES  
PICAZA

ONDO PASA  
JAIETAN!

Aurten abuztuan  
ere zabalik



MEKANIKA



OLIOA



PNEUMATIKOAK

Marka guztiak



DIAGNOSIA

BKT Diagnostia



ESEKIDURA



AIRE GIROTUA

betetzea



BALAZTAK

Pastillak eta diskoak



GAS GARBIKETA

IAT begirako bermearekin

La Isla auzoa z/g, Arakaldo 94 672 74 81 - 656 701 399

## LUIAONDOKO Jaiak

# Akerbeltz, Joselu Anayak, Patxi Perez... jai potenteak prestatu dituzte Luiaondon

Luiaondoko herritarrek jaietako egitarau ia osoa prestatu eta ohiko jarduerekin musika eskaintza fresko eta dantzagarria eskainiko dute.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Luiaondoko jai batzordeak lan handia egin du eta uztaileko ospakizunen egitarau oparoa zehaztu du jadanik. Gauzak horrela, 17an, 18an, 19an eta 22an kalean etengabe egoteko arrazoiak eskainiko dizkie herritarrei. Lehenengo egunean, ostiralean, gogor abiatuko dituzte ospakizunak ohiko ereduari jarraiki, eta 18:30ean kalejira hasi eta gero, txupinazoa, buruhandiak, elektrotzaranga, eta Kresala zein DJ Varroren musika emanaldiak egongo dira gaue-

ko ordu txikiak heldu arte. Larunbatean lasaiago ekingo diote egunari 11:30ean bola jaurtiketarekin eta umeentzako tailerrek, baina eguerdian eta arratsaldean jai tenperatura igotzen joango dira trikipoteoarekin, UNO karta txapelketarekin, pilota partidekin, La Magdalena bola txapelketarekin eta bingoarekin. 21:00etan borborka egongo da giroa eta odolostejanak balioko du Akerbeltz eta DJ Blessiven emanaldietara begira indarrak hartzeko, 23:00etan eta 02:30ean, hurrenez hurren.

Igandean ospatuko dute Txosna Eguna eta 10:30etik aurrera fron-

tenisak, eskulaneak eta bermutak bat egingo dute paella txapelketarekin. 14:30ean herri bazkariak jarraituko du gastronomia erdiguenean jartzen eta bazkalostean bingoa eta mus txapelketa egongo dira digestioa egiten laguntzeko. 17:00etatik aurrera hurrentzako bola jaurtiketa eta parkea prestatuko dituzte eta 19:00etan Patxi Perez eta Konpainiaren dantzaldiak alaituko du herria. 20:30ean hirugihar jana eskainiko dute nekea arintzeko eta 21:30ean Joselu Anayak taldeak hartuko du lekukoa. Gaua amaitzeko karaokea egongo da.

**Luiaondoko Jai Batzordeak kalean etengabe egoteko arrazoiak eskainiko dizkie herritarrei**

Azkenik, uztailearen 22an azoka antolatuko dute 12:00etatik aurrera, meza egingo duten ordu berean, alegia. Eguerdian bermutari tartea egingo diote eta 15:00etan herri bazkaria deituko dute. Mahaia ez dute utziko arratsaldeko lehen orduetan, bingoa eta tute txapelketa prestatuko baitituzte eta 18:00etan herri jokoen txanda izango da. 19:30ean doinu mexikarrak nagusituko dira Mariachi Imperialaren eskutik eta 20:30ean txorizo jana azkenurreko ekintza izango da, 22:00etan amaierako traka botako baitute.

# LUIAONDOKO Jaiak



## Egitaraua

### 07.17 Ostirala Txupinazoa

18:00 // Kalejira  
20:00 // Txupinazoa  
20:15 // Buruhandiak  
21:00 // Elektrotzaranga  
23:00 // Kresala  
02:30 // DJ Varro

### 07.18 Larunbata Gazte Eguna

11:00 // Bola jaurtiketa bolatokian  
11:30 // Haurrentzako tailerrak  
12:30 // Trikipoteoa  
16:30 // UNO karta txapelketa  
17:00 // Pilota jaialdia  
18:00 // Bola jaurtiketa bolatokian  
19:00 // Bingoa  
21:00 // Odoloste jan herrikoia elizako zelaietan  
23:00 // Akerbeltz  
02:30 // DJ Blessive

### 07.19 Igandea Txosna Eguna

10:00 // Frontenis txapelketa  
11:30 // Eskulanak haurrentzat

11:00 // Meza  
11:00 // Paella lehiaketa  
12:30 // Bermuta  
14:30 // Paella lehiaketaren sari banaketa  
14:30 // Herri bazkaria  
16:00 // Bingoa  
16:00 // Mus txapelketa  
17:00 // Haurrentzako bolo-jaurtiketa  
17:00 // Haurrentzako parkea  
19:00 // Erromeria Patxi Perezekin  
20:30 // Hirugihar-jana  
21:30 // Joselu Anayak  
23:30 // Karaoke gaua

### 07.22 Asteazkena Madalena

12:00 // Azoka  
12:00 // Meza Santa Maria Magdalenaren omenez  
12:30 // Bermuta  
15:00 // Herri bazkaria  
16:30 // Tute txapelketa  
17:30 // Bingoa  
18:00 // Herri jokoak  
19:30 // Dantzaldia Mariachi Imperial taldearekin  
20:30 // Txorizo-jana elizako zelaietan  
22:00 // Jai-amaierako traka



# GANORA

IDEIAK GAUZATZEN DITUGU

Trofeoak, **Kopak**, Txapelak, **Plakak**, Giltzatakoak, Pinak, Kamisetak, **Zapiak**, Amantalak, **Sukalkit**, Laser grabaketak, **Metakrilatoa**, Promozio artikuluak, **Sari instituzionalak**, Merchandisinga, **Grabatuak**, Taillaketak, **Broduak**, Errotulazioa, Biniloak, Lonak, **3D inprimaketak**, Estanzazioak...



# ARETAKO Jaiak

## Lau egun Aretako herri izaera aldarrikatzeko



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Bizilagunen arteko harremanak estutu eta Aretako herri izaera indartzeko baliatuko dituzte beste urte batez Aretako jaiak. Jai Batzordeak hilabete luzeak eman ditu festetako programazioa osatzen, adin eta gustu guztietako herritarrentzat gozagarri.

Urtero bezala uztailearen 24an jaurtiko dute festetako lehen suzeria, Aretako bihotza den Kultur Etxeko balkoitik. Aurten ARATE elkarteak izango du txupina pizteko ardura.

Jai-giroak, ordea, aurretik ere hartuak izango ditu Aretako kaleak. Izan ere, paella txapelketa, gazte bazkaria eta kalejira egingo dituzte Kultur Etxeko ekitaldi protoko-

larioaren aurretik. Ohi bezala musika eskaintza oparoa izango da txosnaguneko oholtzan. Aurtengoan presentzia nabarmena izango dute eskualdeko arrastoa duten taldeak: Barrrk edota Zitzada & Rlantz, esaterako. Igandean Ximena laudioar gaztea igoko da eszenatokira. ETB 1eko Ztanda saioan parte hartzen ari da Ximena, eta Aretako Jaietako kontzertua baino lehen ziur ebatzita egongo dela zer nolako emaitza lortu duen telebistako lehiaketa horretan.

Aretako Jai Batzordetik jai herrikoiaren aldeko apustuan berretsi dira berriro ere, eta "gaueko eskaintzatik haratago" ekingo dute guztietan parte hartzeko gonbita luzatu diete herritarrei.

*\*Egitarauan aldaketak egon daitezke.*

## Egitaraua

### 07.24 Ostirala

11:00 // XIII. Paella Txapelketa

14:00 // Paella Txapelketako sari ematea

15:00 // Gazte Bazkaria, AGAk antolatuta

17:00 // Party and Go

19:00 // Pregoiairen irakurketa eta txupinazioa

19:15 // Buruhandi eta hankaluzeak

19:15 // Kalejira Aretako Txistulari eta trikitilariekin

21:00 // Kontzertuak: Graffiti taldea, Zaunka, Muxutruk Erromeria eta Aretako MJ

### 07.25 Larunbata

09:00 // XIII. Alpitxura igoera

10:00 // Marmitako Txapelketa

11:00 // Ping-Pong txapelketa, bikoteka

12:00 // Igel-toka Aratz tabernan

13:00 // VII. Omenaldia Aretako Txistulariei

13:00 // Laudioko Arloteen bisita

14:00 // Marmitako Txapelketako sari ematea

17:00 // Bolo arabar txapelketa

17:30 // Apar Festa Santa Ana Nagusien Klubean

18:00 // VIII. Areta Trail Lasterketa

18:05 // III. Trail Txiki

19:30 // Pintxo dastaketa

21:00 // Parrillada herrikoia

22:30 // Kontzertuak: Zitzada&Rlantz, Barrrk eta Iratzar Erromeria

### 07.26 Igandea

10:00 // Mugarriei bisita

11:00 // Auto Klasikoen erakusketa

11:00 // Artzai txakurren erakustaldia Santa Ana zelaian

12:00 // Santa Anaren omenezko meza

12:30 // Herri kirolak

14:30 // Bazkaria eta 80 urtetik gorakoei omenaldia, Santa Ana Nagusien Klubean

15:00 // Herri bazkaria

17:00 // Petanka herrikoia

20:00 // Kontzertua: Ximena

21:00 // Dantzaldia Santa Ana Nagusien Klubean

### 07.27 Astelehena

11:30 // Rafa Olabarria esku pilota memoriala, finalak

18:00 // Orduswing, dantzaldia

18:00 // Buruhandiak

Galtzagorri taldearen eskutik

20:00 // Bi Hotsak

abesbatsaren emanaldia

Santa Ana parrokian


21:00 // Aretako buruhandi eta hankaluzeak

22:00 // Jaien amaiera traka

KOMUNIKA

ZERBITZU  
FAKTORIA

KOMUNIKAZIO  
AGENTZIA INTEGRALA



Diseinu grafikoa · Ikus-entzunezkoak  
Sare sozialak · Publizitate agentzia  
Erakunde komunikazioa  
Itzulpen gintza eta interpretazioa

komunika@aiaraldea.eus · 946 56 85 54  
www.komunika.eus



Farmacia Ais

Patricia Bilbao kalea 8, ARETA

K O K A L E K U B E R R I A



SPD  
Belarritakoak  
Tentsioa  
Homeopatia  
Osagarri naturalak  
Ileko eta aurpegiko  
errutinak

☎ 688 674 754 @farmaciaais www.farmaciaais.com

eltunel

TABERNA-JATETXEA

Otarreko gozoak jaietako egun eta ordu guztietan

Ondo pasa jaietan!

Gasteiz kalea 5, ARETA-LAUDIO

Tel. 94 672 05 58

## ARETAKO Jaiak



**ARATE ELKARTEA** HAMARKADA LUZEZ ARDURATU DA ARTZAIN OFIZIOA ALDARRIAKTU ETA ARTZAIN TXAKUR ERAKUSTALDIK ANTOLATZEAZ. ARETAKO JAI BATZORDEAK URTEETAKO LANA AITORTU DIE JAIETAKO TXUPINERO IZATEKO IZENDATUTA.

Testua eta argazkia **Almar Gutierrez Bidarte**

Aretako Jai Batzordeak urte luze herriko festetan ekarpena egin duen ARATE elkartearen omenduko du aurten, elkarteko kideei txupinazoa jaurtitzeko ohorea eskainiz. Arabako Artzain Txakurren Aldeko Elkartearen da ARATE.

Duela 50 urte baino gehiago dira Aretan artzain txakurren erakusketak antolatzen direla. Fidel Alonsok gogoan du egun txosnagunea jartzen den zelaian egindako erakusketa baten argazki zaharra ikusi izana nonbait. Jose Ramon Iriondo, Elortegi... asko dira erakustaldien atzen aritutako artzainak. Gaur egun ARATE elkarteko lagunak dira Santa Ana inguruko zelaian ekitaldia mimos antolatzeaz arduratzen direnak. Jaietako ekin-tza enblematiko bilakatu dira, dozenaka lagun elkartzeko dira bertan artzaintzaren ofizioaz, moka-duaz eta bertsoez gozatzeko.

**Artzaintza aldarri**  
1993an sortu zen ARATE elkarte,

aurretik artzain txakurren erakusketa eta txapelketak antolatzen zuten horien guztien lekukoa harturik. Arabako txapelketa da antolatzen duten ekitaldirik handiena. Hain zuzen ere txapelketa horretan ebazten da nork ordezkaturiko duen Araba Euskal Herriko Txapelketan zein Oñatiko Nazioarteko Txapelketan. Euskal Herritik kanpo ere Herrialde Katalanetara ere bidali dituzte artzain eta txakurrak ARATE elkartearen bidez.

Elkartearen helburu nagusia, ordea, txapelketa eta erakusketatik haratago doa: artzaintzaren ofizioa ezagutaraztea eta aldarrikatzea. "Lehen sektoreak Aiaraldean eta Araban suposatzen duena erakutsi nahi dugu. Erakutsi nahi dugu artzaintza ez dela kontu bukolikoa", nabarmendu du Eba Alonso elkarteko kidea.

Garaiak aldatuz doaz, eta artzain txakur erakustaldien osasuna onabada ere, ofizioan aritzeko jendea

falta da. "Geroz eta gutxiago dira abeltzaintza lanbide hartzen dutenak, lan sakrifkatua da", azaldu du Fidel Alonsok.

### Eskarmentua

Artzain txakurren txapelketetan eskarmentua duen artzaina da Fidel Alonso aretarra. ARATEko kidea ere bada, eta berari dagokio elkartearen antolatutako ekitaldietan artaldea jartzea.

Gogoan du txapelketetan hasi

zenez askoz gehiago zirela artzainak: "1990eko hamarkadan hasi nintzen eta 2007ra arte ez nuen lehenengo txapela irabazi Gane-kogortan abandonatuta topatu nuen Aurki txakurrari esker. Asko eta maila altukoak ziren nire aurretik zeudenak". Bigarren eta hirugarren postu ugari ditu palmare-sean, bai eta Oñatiko Nazioarteko Txapelketa entzutetsuan, Lis txakurraren laguntzaz, 2023an lortutako lehen postua ere bai.

AUTOBUSES  
**ONIEVA**

Gora  
Aretako  
jaiak!

Informazioa eta erreserbak: 94 672 64 45

Larrialdia: 619 76 66 51

71 eserleku arteko autobusak

[www.onieva.com](http://www.onieva.com)  
[onieva@onieva.com](mailto:onieva@onieva.com)

**ARETAKO JAIAK**

**Gora Aretako jaiak!**

**UZTAILAREN 24TIK 27RA**

PERTSONA GUZTIAK ONGI ETORRIAK, JARRERA GUZTIAN EZ!

**Trail Lasterketa**  
Gastronomia lehiaketak  
**Erromeriak · Jolasak**  
Kontzertuak · Ping Pong  
**Esku pilota eskola txapelketa** · Herri kirolak  
**Bazkari herrikoia**  
Artzain txakur lehiaketa...

**ARETAKO JAI BATZORDEA**

# UGARTEKO Jaiak

## Egitaraua

07.30

### Osteguna

16:00 // Tute txapelketa Ugarte Tabernan  
19:30 // Talo dastaketa Ugarteko Emakume Taldearen eskutik

07.31

### Ostirala

09:00 // Kalejira  
11:00 // Alebin mailakoen futbito txapelketako kopako finala  
12:00 // Meza  
12:00 // Infantil mailakoen futbito txapelketako kopako finala  
13:00 // Kalejira San Roke Musika Elkartearen taldearen eskutik  
17:00 // Kadete mailakoen futbito txapelketako finala  
18:00 // Jubenil mailakoen futbito txapelketako finala  
18:15 // Kun Kun batukadaren kalejira auzotik  
19:00 // Txupinazoa  
19:30 // Senior mailakoen futbito txapelketako finala  
20:30 // Sardinada  
22:30 // Kontzertuak: Jonkass, Tatta eta HBN

08.01

### Larunbata

10:00 // Baserritar eta artisau azoka  
10:00 // Pilota eta pala partiduak Lamuzako frontoian Herriaren taldearen eskutik  
10:30 // Benjamin mailakoen futbito txapelketako finala  
11:30 // Alebin mailakoen futbito txapelketako

ligako finala

12:30 // Poteoa Arloteen eskutik

12:30 // Infantil mailakoen futbito txapelketako finala

13:30 // Poteoa

15:00 // San Inazio bazkari herritarra

16:30 // Senior mailakoen futbito txapelketako finala 3. eta 4. postua

17:30 // Kadete mailakoen futbito txapelketako finala

18:00 // Buruhandiak

18:30 // Jubenil mailakoen futbito txapelketako finala

19:30 // Senior mailakoen futbito txapelketako finala

22:30 // Kontzertuak: NØT, Zirkinik Bez eta DJ Pakita Penas

08.02

### Igandea

13:30 // Tortilla eta bizkotxo txapelketa  
15:30 // Mus azkar torneo  
17:30 // Umeentzako gunea Basoan Kirikiño taldearen eskutik  
18:30 // Dantza plaza  
20:00 // Herri kirolak txosnagunean  
20:00 // Odoloste jana Auzolan taldeak antolatua txosnagunean  
23:00 // Jai bukaerako traka

08.03

### Astlehena

Umearen Eguna  
Barraketan prezio murriztuak

## Ugarteko torneoko kideak omenduko dituzte auzoko jaietan

Uztailak 30etik 2ra luzatuko da egitaraua, eta Jonkass, Tatta, HBN, NØT, Zirkinik Bez eta DJ Pakita Penas igoko dira plazako oholza gainera.



Ehunka parte hartzaile biltzen ditu Ugarteko torneokoak. Antonio Crespo Perez

#### Testua Txabi Alvarado Bañares

Urtero bezala, abuztuari ongi etorri beroa emateko funtzioa beteko dute Ugarteko jaiak. Uztailaren 30tik abuztuaren 2ra luzatuko dira Laudioko auzo horretako jaiak. Ostegunetik igandera, lau egun, ekintzaz beteta goizetik gauera arte. "Aurreko urteko dinamika berdina" jarraituko du aurtengo programak, jai batzordeko kideen esanetan. Bide horretan, gaueko musika eskaintzak pisu nabarmena izango du beste behin ere. Jonkass, Tatta eta HBN igoko dira oholtzara ostiralean, eta NØT, Zirkinik Bez eta DJ Pakita Penas larun-

batean. Horrez gain, antolatzaileek nabarmendu dute berriro antolatuko dela mus azkar txapelketa, eta tortilla eta bizkotxo txapelketak batera egingo direla ere azpimarratu dute, igande goizean izango baitira biak.

#### Torneoari aitortza

Ostiraleko txupinazoa izango da egitarauko ekitaldi berezietako bat, omenaldia egingo baitiete bertan auzoko futbito txapelketa "hasieratik gaur egunerarte" antolatzen ibili diren pertsonei. "Jai batzordean gaudenok betidanik ezagutu dugu torneoak eta maiatzetik hasita jaiak izan arte auzoari bizitza ematen dion ekimen garran-

tzitsua da", goraiatu dute. Hain zuzen, Ugarteko jaien egitarauaren barruan txertatu dituzte txapelketako finalak. Bost norgehiagoka jokatuko dira ostiralean, eta beste zazpi, aldiz, larunbatean.

Ez da lan makala lau eguneko egitaraua prestatzea. Jai batzordeko kideek urritik daramate bilerak egiten, eta jaiak hurbildu ahala eriritmoa bizitu behar izan dute.

Azaldu dutenez, "trantsizio prozesuan" daude murgilduta uneotan, eta antolakuntzan parte hartzeko deia luzatu diete bizilagun guztiei: "Jende gaztea batu den arren, auzoko gazte gehiago Batzordean sartzea animatu nahi ditugu, laguntza beti eskertzen baita".

**Ez galdu jaien jarraipena**  
[aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus)  
**atarian**

argazkiak, bideoak, zuzenekoak eta gehiago!



**UGARTEKO ESTANKOA**

300  
ARTISAU-GARAGARDO  
BAINO GEHIAGO

BONOLOTO  
EUROMILIOIA  
KINIELAK



Ugarte 6, LAUDIO - 946 720 869



**ULTRAMARINOS  
SALLEN**

*Ondo pasa jaietan!*

**Ugarte kalea 10 (Laudio)  
94 672 05 63**